

## ARIGUNEAK



### 1. Azalpena

Saio honen helburua da ikasleek euskaraz aritzeko guneak bilatzeko jarrera aktiboagoa izan dezaten. Horretarako motibazioa bildu behar dute euskaraldunekin euskaraz egiteko konpromisoari heltzeko, denok ulertzen dugun gaztelaniaren bide errazetik jo gabe.

Irakasleak proposamena egokitu beharko du ikasleen herriko egoera soziolinguistikoaren arabera, hau da, herriak duen hiztun elebidunen dentsitatearen arabera, koherentea izan dadin (ikusi oharra).

### 2. Jarraibideak

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Helburu nagusia du herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta, euskararen erabilera handitzea. 2018. urteko azaro-abenduan egin zen lehen aldiz, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bigarrenez eta 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra, hirugarrenez.

Lehenengo Euskaraldian [ahobizi](#)<sup>1</sup> eta [belarriprest](#)<sup>2</sup> rolak definitu ziren eta 2020koan *arigune*-ak sortu ziren. Baina, [zer dira ariguneak](#)?<sup>3</sup>

Beraz, entzun duzue, ariguneak euskaraz lasai aritzeko guneak dira, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dutenak, barne funtzionamendua euskaraz egiten dutelako (barne ariguneak) edo herritarrei zerbitzua euskaraz ematen dietelako (kanpo ariguneak).

**“Gunea” oso modu zabalean ulertzen da; izan daiteke saltokia, aisialdi taldea, enpresa, ikastetxea, hedabidea, kultur taldea, baita kuadrilla edo WhatsApp taldea ere! Kontua da bertan harremanak euskaraz egiteko aukera izatea, hasi eta buka.**

Zenbat arigune ezagutzen dituzue zuen herrian edo auzoan? Elkartu talde txikian (3-4 lagun) eta zerrenda egin. Horietan guztietan **ahobizi** edo **belarriprest** aritzeko konpromisoa hartuko zenukete?

### 3. Oharrak

#### 3.1. Prestaketa

Komeni da ikasleak ahobizi, belarriprest eta arigune kontzeptuak ongi ulertzeko denbora hartzea.

#### 3.2. Moldaketak

**Hiztun elebidunen dentsitate handiko herrietan** jarduera egokitzea komeni da. Izan ere, hiztun elebidunak %70 edo %80tik gorako herrietan, galdera ezin da izan zenbat arigune ezagutzen dituzten. Egokiagoa izan daiteke honelako zerbait galdetzea:

- Zuen herriaren ezaugarriengatik saltoki, talde, elkarte eta enpresa gehienak “arigune” izan daitezke. Gaztelania nagusi diren guneetan zergatik gertatzen da hori? Zer bururatzen zaizue gune horietan euskara gehiago erabil dadin?
- Zuen herriaren ezaugarriengatik saltoki, talde, elkarte eta enpresa gehienak “arigune” izan daitezke. Hiriburura joaten zaretenean egoera oso ezberdina da. Ezagutzen duzue hiriburuko arigunerik? Nola jokatzeko duzue bertara joaten zaretenean?

<sup>1</sup> <https://euskaraldia.eus/belarriprest-eta-ahobizi/#ahobizi>

<sup>2</sup> <https://euskaraldia.eus/belarriprest-eta-ahobizi/#belarriprest>

<sup>3</sup> <https://www.youtube.com/watch?v=mzmF-bgTUgo>

### 3.3. Material osagarria

Euskaraldiari buruzko informazioa: [euskaraldia.eus](https://euskaraldia.eus)<sup>4</sup>

---

<sup>4</sup> <https://euskaraldia.eus/>